

azkenik, beharrezkoa da, baita ere, kontrol ekintza horiek edozein ordutan egiteko -ganean eta goizaldean bereziki- prestatutako pertsonala edukitzea.

Baldintza horiek nekez bete ditzakete ikuskapen horiek gaueko orduetan egiteko pertsonalik ez daukaten udalek, ez eta prestakuntza tekniko nahikorik edo neurketa aparailu egokirik ez daukatenek ere. Horrekin esan nahi dugu prestakuntza horrek etengabeko praktika eskatzen duela, eta ez dela nahikoa jakitea nola funtzionatzen duen sonometro batek, baizik eta ikuskapen zeregin horiek teknikoki konplexuagotzat hartu behar direla.

Zentzu honetan, kontuan izan behar da soinu neurketa baten ondorioz zigor bat ezartzea gerta daitekeela, ihardueraren bermezko itxiera adibidez, eta beraz establezimendu horien titularren eskubideak bermatzeko beharrezkoa dela neurketa horiek zuzenak izatea.

Horregatik guztiagatik, azterketa honetan isuri ditugun gogoeten ildotik, kontuan izanik beharrezkoa dela toki administrazioek ahalik eta lasterren jarrera irmoa hartzea eta ahalegin etengabea egitea zaratek hiritarrei eragiten dizkieten ondorio deseroso eta kaltegarriak gutxitzeko, Arartekoak gomendatu egiten die udalei langile aditu eta gaituak har ditzatela edota beren pertsonala treba dezatela zaraten ikuskapen eta kontrola egin ahal izateko.

Orobat, ikuskapen zerbitzu hori emateko gaitutako pertsonalik ez daukaten toki erakundeen kasuan, proposatzen dugu betekizun hori egiteko zerbitzu alokerako kontratu bat egitea alorrean espezializatutako enpresa batekin, udal pertsonalak zerbitzu hori ematen ez duen bitarteko denboran soinu neurketak egiteko.

7.6. ZABORRA ORDUTEGITIK KANPO ATERATZEAGATIK, KALE-GARBIKETA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZEN AGINDUA HAUTSI DUTENEI EZARRITAKO ZIGOR ESPEDIENTEAK, EGILETASUNA ETA ERRUGABETASUN USTEA

Aurreko urteetan, zenbait hiritarrek kexa helarazi diote erakunde honi, zaborra ateratzeko ordutegiei dagokienez kale-garbitetari buruzko udal ordenantzen aginduak hausteagatik zigortuak izan direlako, horretarako froga bakar bezala zabor poltsetan haiei buruzko dokumentuak aurkitu ondoren.

Arartekoari azaldu zaizkion arazoetan, gure erakundearen iharduerak beti izan du ondorio bezala halako gomendio bat egitea, eskumena duen udal agintariari eskatzearen emandako zigor erabakiak bertan behera uztea. Gaur arte, egin ditugun era horretako eskariak beti ontzat hartu izan zaizkigu, haietan azaldutako arazoibideetan oinarrituz.

Konstituzio Auzitegiak, aspaldiko ebazpenetatik hasita (KAre 1982ko apirilaren 1eko Epaia), argi ulertu du errugabetasun ustea funtsezko eskubidea dela eta aginte publiko guztiek men egin behar diotela edozein erabaki hartzerakoan, bide jurisdikzionaletik nahiz administratibotik. “*Zalantzarik ez,*

errugabetasun ustea salbuespenik gabe nagusi da zigor arauketan, eta errespetatua izan behar da edozein zigor ezartzerakoan (zigor penal, oro har administratibo, zein zerga alorrekoan ere); izan ere, ius puniendi delakoa bere agerbide desberdinetan erabiltzeko orduan, Konstituzioaren 24.2 artikulua frogari dagokionez eta norberaren burua defenditzeko kontraesanezko prozedurari dagokionez ezartzen duen agindua bete beharra dago. (...) Zigor erabaki orok, zigor penal zein administratiboa izanik ere, egotzitako ekintzen ziurtasunarekin batera -ziurtasun hori akusaziorako froga batez hortua izan behar delarik- ekintzei buruzko erruduntasun juzkuaren ziurtasuna ere eduki behar du” (KAre 1990eko apirilaren 26ko Epaia). Alejandro Nieto irakaslearen esanean (*Derecho Administrativo Sancionador*, TECNOS 1993, 332 orria), adierazpen horrek hauxe esan nahi du: 1.- Zigorra akusazioa frogatzeko edo gaitzestutako jokamoldea inkriminatzeko ekintza edo bideetan oinarrituta dagoela. 2.- Frogatu beharra akusatzaileak duela, eta inor ez dagoela behartuta errugabea dela frogatzen. 3.- Erakunde zigortzaileak libreki baloratutako frogek ondorio nahikorik ez izanez gero, errugabetasuna erabaki behar dela. 4.- Errugabetasun ustea ekintzei eta erruduntasunari dagokienez eduki behar dela kontutan. KAre nahiz jurisdikzio arrunteko organoen adierazpenetan, lehenago esan dugun bezala, oso ugariak dira eta, beraz, ez dugu uste beharrezkoa denik hona ekartzea.

Indarrean dagoen lege antolamenduan, errugabetasun ustea zigor araubide administratiboan jasota dago, haren oinarritzko printzipio bezala, Administrazio Publikoaren Erregimen Juridikoari eta Amankomuneko Prozedura Administratiboari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137. artikuluan zehazki.

Hasieran aipatu ditugun kexei buruzko espedienteak tramitatzera eraman gintuzten zigor prozedurak Udaltzaingoko funtzionarioek egindako salaketan oinarrituta zeuden. Beraietan, aditzera ematen zen zegokion ordenantzan ezarritako ordutegitik kanpo ateratako zabor poltsen barruan bazeudela halako paper batzuk, gerora salatua izan zen pertsonarekin zerikusia zutenak. Prozeduretan beste edonolako froga gehiagorik erantsi ez zen arren, espedienteen ondorioz halako zigor erabaki batzuk hartu ziren. Gure iritziz, egin dugun azalpenaren arabera, arau haustea benetan frogatu zen arren -zaborra baimendutako ordutegitik kanpo atera izana-, hartutako zigor erabakiek hautsi egin zuten salatuaren egiletasunari zegokionez eta, beraz, haren erruduntasun eta erantzunkizunari zegokienez ere kontutan izan behar zen errugabetasun ustea.

Adierazi dugun bezala, arau haustea egiaztatu ahal izan ziren azaroaren 26ko 30/1992 Lege horren 137. artikuluko 3. puntuan emandako aginduetan oinarrituz, kasu guztietan agintearen agente izaera zuten funtzionario publikoak izan zirelako salaketa egin zutenak. Dena dela, egiletasunari dagokionez ezin da gauza bera esan, zeren eta poltsen barruan halako zerbait, dokumentuak gehienbat, aurkitzeak eta dokumentu horiek salatutako pertsonarekin zerikusia izateak ez du esan nahi, beste frogabiderik ez dagoen bitartean, pertsona hori izan zela zabor poltsak baimendutako ordutegitik kanpo atera zituena. Arartekoak aztertu dituen kasuetako bakar batean ere Administrazio eskudunak ezin izan du frogatu espedientepean jarritako eta ondoren zigortutako hiritarra izan zenik zaborra

atera zuena. Bada, hala eta guztiz ere, pertsona horri berdin-berdin ezarri zaio lege antolamenduak dioena, zorrotasun handiz bezain arrazoi gutxiz.

Ordutegiak errespetatu beharrari dagokionez, udal ordenantzetan arau haustetzat har litekeen ekintza bakarra zera da: kale-garbiketa zerbitzuek jasotzekoak diren poltsa edo bestelako gauzak baimendutako orduetatik kanpo uztea bide publikoan. Utzitako gauza horiek halako etxebizitza batetik irtenak izan ahal izatea ezin da erabili ondorioztatzeko familiburua dela arau hauslea, ez eta egin bide den arau hausketaren erantzunkizuna berari leporatzeko ere. Zaborrak uzteko ordutegiari dagozkion arau hausteen egileak materialki ekintza hori egiten duten pertsonak bakarrik izan daitezke.

Gai honi buruzko informazioa eskatu diegun administrazio batzuek beraien erabakia justifikatzeko arrazoi bezala esaten dute hiriko garbitasuna eta osasungarritasuna ziurtatzeko beharrezkoa den plangintzaren barruan hartu behar izaten dituztela neurri horiek, hiritarrei ezartzen zaizkien obligazio horiek ez direlako betetzen kasu askotan. Gure aburuz, ordea, administrazio ekintza batek sekulan ez du arrakasta edukiko, baldin eta komunitatearentzat onuragarri eta osasungarria den helburu bat lortzeko, hiritarren funtsezko eskubideak kaltetu beharra badago.

Aurreko guztia ikusita, eta emandako arrazoietan oinarrituz, Arartekoak uste du ezin dela deduzitu halako lege hauste administratibo arautu batean (kale-garbiketa zerbitzuek jasotzekoak diren poltsa edo bestelako gauzak baimendutako orduetatik kanpo uztea bide publikoan) egiletasuna halako pertsona bati edo gehiagori dagokiola, poltsetan pertsona horiekin zerikusia duten gauzak aurkitu direlako. Frogabide bakar horrekin hiritarrei ipinitako zigorrek argi eta garbi hausten dute errugabetzat hartua izateko eskubidea.